



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko urriaren 25a

85. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituena. Osoko Bilkurak bazter utzi du osoko zuzenketa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa. Osoko zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Legea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea, batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzia (14. or.).
- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42. eta 45. artikulua aldatzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (14. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan ardibide edo abelbideetan dauden herri-lurrak egiazki berreskuratze aldera. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako zenbait material didaktikoa dezan ETaren terrorismoak Nafarroan izandako ondorenen kontakizuna egiteko proiektuaren barruan. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen ditu, Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jasotako “doitze-neurri” deituak. Osoko Bilkurak onetsia (16. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernua eta haren Industria, Energia eta Turismo Ministerioa premiatzen dira ez dezaten luza Garoñako zentral nuklearraren bizitza. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan osasun arloko entitate pribatuekiko itunei eta deribazioei buruzko plan berria. Osoko Bilkurak onetsia (17. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak Nafarroako Gobernuari dei egin dion edota Gobernuak Sala horren aurrean agertzeko asmorik ba ote duen, Hitzarmenaren azken aldatetari buruz UPyD alderdiak aurkezturiko errekurtsioa dela eta. Galdera erretiratzea (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZI DU OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak honako Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa: Aurrekontu oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jaso bezala, aparteko paga kentzeko agindua betetzeko neurriak hartzen dituen Foru Lege proiektua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, aipatu proiektua Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordera igorri da.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzkoa.

OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2012ko ekainaren 8ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Nafarroan testuliburuaren doakotasunari buruzko programaren aplikazioaren bidez aurrerapauso handia eman da ikasleek oinarrizko hezkuntzaren etapan doako irakaskuntza jasotzeko duten eskubidearen erabileran.

Mailegu-sistema baliagarria izan da ikasleek jarrera positiboak izateko material komunaren erabilerari dagokionez, eta denon jabetzakoak diren ondasunak baloratzeko.

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako

Legea garatu duten hiru erregelamenduek, eta gehieneko kopuruak ezarri dituzten foru aginduek, hutsaldu egin dute, hein batean, legearen espiritua, eta zenbait desdoitze eragin dituzte; horregatik, legea garatu duen araudiak zenbait aldaketa behar ditu. Desdoitze horiek kaltegarriak gertatu dira zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzat

eta zenbait ikastetxentzat, eta honakoak dira, besteak beste:

- Zenbateko txikiegiak testu liburu guztiak ordaintzeko, edota liburu horiek ordeztan dituzten material kurrikularrak erosteko.
- Eskola-materialaren gastuak ordaintzeko beka-deialdiak bertan behera uztea.
- Kudeaketa sistema: erosketak eta ziurtagiriak egitea oso konplexua gertatzen da ikastetxeetarako.

Nafarroako Gobernuak proposatzen duen foru lege proiektu hau atzerapauso bat da oinarrizko irakaskuntza publikoaren doakotasunerantz abiatutako bidean, eta, detektatutako disfunczioei dagokienez, ez dakar aurrerapauso orokorrik. Azken batean, ez du aurreko legea hobetzen; aitzitik, murriztu egiten ditu ikasleek testu liburuak eta material kurrikularrak doan eskuratzeko bideak.

Hori guztia dela eta, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak eskatzen du Nafarroako Gobernuari itzul dakion Testu Liburuak eta Material Didaktikoa Finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektua.

2. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari eztabaida eta bozketarako aurkeztutako osoko zuzenketa, eztabaidatua eta bozkatua izan dadin.

Zioak: Konstituzioaren 27. artikuluko 4. idatzatiaren arabera, "oinarrizko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa da" ("obligatoria y gratuita"). Hezkuntzaren Lege Organikoaren 3. artikuluko 3. idatz-zatiak hau dio: "Lehen Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak osatzen dute oinarrizko hezkuntza." Gaztelaniaren Errege Akademiaren hiztegiak gratuita honela definitzen du: "de balde". Eta María Moliner gaztelaniaren erabilera-hiztegiak, berriz, honela: "se aplica a lo que se hace, se da o se recibe sin cobrar o pagar por ello".

Aurrekoa kontuan hartuta, argi eta garbi dago nola eta zenbat ordaindu behar den oinarrizko hezkuntzaren truke, eta kontuan hartu behar ote den pertsonen errenta edo beste irizpideren bat; ez dago horri buruzko interpretazio posiblerik: doanekoa izan behar du, besterik gabe.

Parlamentuak onestea nahi den Testu Liburuak eta Material Didaktikoa Finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuak planteatzen duena da

6/2008 Foru Legean ezarritako doakotasun sistemaren ordeztuak beste bat jartzea, errentaren arabera, eta horrek nabarmen urrunduko gintuzke Konstituzioko doakotasun-printzipiotik.

Testu liburuak, edozein dela ere formatua, material didaktikoa, eta are beste material osagarri batzuk ere, nahitaezko elementuak dira irakasleei beren irakaskuntza- eta hezkuntza-lanean laguntzeko; beraz, hezkuntzarako ezinbestekoak dira, ikasgelak hartzen dituzten eraikinak diren bezala, edota ikastetxeetako altzariak diren bezala, hezkuntza ere, oinarrizko etapetan, nahitaezkoa eta doakoa da.

Hori guztia dela eta, honako osoko zuzenketa aurkeztu diogu Testu Liburuak eta Material Didaktikoa Finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari, eta Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen dugu.

3. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Zioak: Martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen xedea zen testu liburuak finantzatzeko programa arautzea, eta programa horren ezarpena 2011-2012 ikasturtean burutu da, aurreikusitako maila guztietara iritsita. Legearen garapenean, zenbait disfunczio egiaztatu dira, hala nola ez dela finantzatzen beharrezkoa den material guztia, argitaletxeek materialetan ezarri duten abusuzko areago-tzea, eta ez dela betetzen Irakurketaren, Liburuaren eta Liburutegiaren ekainaren 22ko 10/2007 Legea; lege hori ez da betetzen, izan ere, foru legean aipatu bai, baina erregelamenduek aukera ematen dutelako liburuak behar ez den establezimenduetan erosteko, eta horrek kalte egin dio liburuaren merkataritzari.

Parlamentu-talde hau, aurreko legegintzaldian, abstenitu egin zen legearen bozketan, eta zenbait alditan aurkeztu izan ditu legea hobetzeko zuzenketak, arrazoi batzuk direla medio:

1. Gure ustez, maileguaren eredia ez da egokiena testu liburuen doakotasuna lortzeko. Familiantzako zuzeneko laguntzak egokiagoak iruditzen zaizkigu, baina, betiere, aurretik emanda, eta ez gastua egin ondoren; bestela, gaur egungo egoera ekonomikoan, gerta daiteke zenbait familiak modurik ez izatea eskola materialaren gastuari aurre egiteko.

2. Berrito diogu doakotasun programak ez dituela soilik testu liburuak hartu behar, ukiezinak, bai zik eta baita ikaslearen interakzioa eskatzen dutenak ere eta, beraz, urtebeterako bakarrik balio dutenak.

3. Erabilera bakarreko koadernoak ugaritzeak asko handitu du eskola materialaren kostua; eta, seguruenik, modu artifizialean.

4. Lege hau eta bere erregelamenduak liburuak zentsuratzen joan dira, frogatuzat jota ezen euskarri nagusi zentsuratutako liburuok erabiltzen zituzten ikastetxeek ez zutela kurrikulum egokia betetzen.

5. Lege honek eta bere erregelamenduek kalte egin diete saltoki txikiei, eta uste dugu hori saihesta daitekeela finantzaketa-legea beste modu batera planteatzen bada eta ziurtatzen bada erosketak Liburuaren Legeak adierazitako lekuetan egiten direla.

Horregatik guztiagatik, uste dugu 6/2008 Foru Legea aldatu egin behar dela, eta alderdi positiboren bat ere aurki geniezaioke legea aldatzeko proiektu honi; esate baterako, hurrengoak:

- Material digital berrien bultzada; izan ere, berrerabilpena errazagoa egiteaz gain, interakziarako bidea ere ematen dute, eta bizkar-zorroen zama fisikoa nabarmen gutxitu ere bai.

- Iraunkorrak ez diren material berriak sartzea.

Jabetuta gaude, hala ere, barrenean tranpa bat duen karkasa bat baizik ez dela hau: ez dakarkie aurrerapenik edo onurarik familiei, baizik eta beste murrizketa bat, ekonomikoa eta eskubideena. Planteatzen duena da maileguaren ordeza a posteriori emanen diren zuzeneko laguntzen sistema bat, errenta tarteen araberakoa, nahiz eta tarte horiek zehaztuta ere ez dauden. Ustez, justuagoa eta bidezkoagoa delako egiten da hori, baina xedapen gehigarri bakarrak aurreko sistemara itzultzea planteatzen du, baldin eta egoera ekonomikoak horretarako aukera ematen badu; horrek argi adierazten diguna da aldaketa hau babesteko dagoen argudio bakarra murrizketa ekonomikoa dela. Bestalde, proiektu honek ez die heltzen kezkatzen gaituzten gainerako gaiei, nola baitira liburuaren zentsura edo liburuak saltzeko prozedura.

Gobernuaren proiektuak, azken batean, oraingo mailegu sistema osatu ezin duten familien egoera ez du hobetzen, eta, gainera, onetsia izanzen gero, areagotu egiten lituzke desberdintasun ekonomiko-sozialak.

Horregatik, osoko zuzenketa hau aurkeztu diogu Testu Liburuak eta Material Didaktikoa

Finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari, eztabaidatu eta norik bere jarrera ager dezan, eta proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen dugu.

4. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa.

Zioak: Oinarrizko Irakaskuntzarako Testu Liburuak Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legean ezarritako testu liburuaren doakotasun programaren ezarpena 2011-2012 ikasturtean burutu da, aurreikusitako maila guztietara iritsita.

Urte horretan beran ailegatu da bere garapen osora, eta ailegatu orduko moldaketa dakar Nafarroako Gobernuak. Oraindik ere emaitzak aztertzekeo tartetik hartu gabe lege proiektua dakar Parlamentura.

Unescoren arabera, hezkuntza oinarrizko giza eskubidea da, gainerako eskubide guztiak bete ahal izateko behar-beharrezkoa. Hezkuntzak askatasuna bultzatzen du eta pertsonaren autonomia; garapenerako onura garrantzizkoak sortzen ditu. Hori horrela izanik ere, milioika haur eta helduk hezkuntza-aukerak ukatuak dituzte, askotan pobrezia eraginda.

Nazio Batuen eta Unescoren tresna normatiboen, nazioartean, derrigortasun juridikoak erabakitzen dituzte hezkuntzaren eskubidearen inguruan. Tresna horiek dira pertsona bakoitzak kalitatezko hezkuntza izateko duen eskubidea bultzatzen eta garatzen dutenak, diskriminazio eta bazterkeriarik gabe.

Hezkuntza tresna boteretsua da sozialki eta ekonomikoki baztertuak dauden haurrak eta helduak pobreziatik atera ahal izateko bere ekimenarekin eta komunitatean haien ekarpena egin ahal izateko.

Unescoren hitzetan, beraz, hezkuntza da tresna garrantzizkoena gizarte-ezberdintasunarekin modu eraginkorrean amaitzeko.

Gauzak horrela izanda, hezkuntza-kalitatea bermatzea ezinbestekoa da. Edozein administraziorik dagokio, beraz, beharrezko neurriak hartzea kalitate hori garatu dadin. Horretara, noski, beharrezko baliabideak esleitu beharko dira, ezarritako neurri horiek bete daitezela.

Edozein jendarte moderno eta aurreratutako bistakoa da justizia sozialaren oreka mantentzea ezinbestekoa dela. Oreka hau bilatzeko, ezinbestean, baldintza berdinetan aritzea ezinbestekoa da, hau da, baldintza berdinak izatea herritarrek, izan ekonomikoki ahaltsuago edo ez.

Hezkuntzarako eskubideak unibertsala izan behar du, eta baldintza berdinetan gainera, goian esan dugun moduan klase edo izaera ekonomikoa aintzat hartu gabe.

Hezkuntza sistema unibertsalaren mantentzerako, ordea, ezinbestekoa da diru publikoaren ekarpenak hori bermatzea. Horretarako Administrazioari dagokio beharrezko neurri fiskalak hartzea, hori ahalik eta neurri progresiboenean garatzeko. Errenten antolaketa bakoitzaren diru sarreraren arabera izatea, horretan, gakoa da. Hezkuntza zerbitzuak berdinak izan behar dute guztientzat, eta horren jarraikotasuna ziurtatzeko gakoa fiskalitatean dago. Aitzakia da, beraz, esatea liburuak ordain ditzakeenak ordain ditzala eta halako baieztapenak egitea, ikasle guztien aukera berdintasuna errespetatu behar denean.

Bestetik, nekez uler daiteke garai hauetan hezkuntza zerbitzu oinarrizko batengatik familiek dirua aurreratu behar izatea; esan nahi baita, egungo egoera ekonomikoan, hainbat familiak ezintasuna izanen dute diru aurrerapen hori egiteko. Ikasleko 100-200 euroko ekarpena egiteko ezintasuna, ondotik beka sistema bat ezartzeko. Hainbeste familia badira, egun, ezin izanen diotenak aurre egin liburuaren erosketari, pobrezia eta bazterketa sozialean, edo ateetan, daudelako.

Dena dela ere, osoko zuzenketa honen zio nagusia murriztailea izatea da. Murriztailea, izan ere, lege proiektu honen helburu nagusi eta bakarra Nafarroako Gobernua gauzatzen ari den murrizketetan beste bat gehitzea izanen delako.

Hezkuntza eskubidea dute herritar guztiek, eta doanekoa gainera. Unibertsala eta dohainik. Horrek izan beharko luke edozein agintariren egin-beharra egun, geure herrialdean. Baina, egun, hezkuntza ez da dohainik inorentzat. Ez da dohainik, baldin eta eskolak eskatzen dituen eskuliburu, ikasmaterial eta eskola materiala, besteak beste, ordaindu behar baititu eskola umearen familiak.

Europar aitzindari diren herrialdeetan, bai emaitza onak dituztelako PISA bezalako azterketetan eta eskola uzte goiztiarraren ehunekoetan, hezkuntza unibertsala eta doanekoa da; doanekoa, ikasleak behar duen guztia ematen baitzaio ikastetxe bertatik.

Hain zuzen ere berdintasuna bermatze aldera hezkuntzan, derrigorrezkoa da ikasle guztiak eskubide berberak izatea. Ahal den neurrian, beka bidez zein materialak eskura emanez; hezkuntzaren doakotasuna bera da auzitan jarri behar dena eta eskuratu behar dena.

Bestetik, aurretik aipatu den moduan, ikasliburu zein, ikasmaterialak finantzatzea bezain garrantzitsua da batetik ikasleek beharrezkoa duten material guztia dohainik izatea: arkatzak, koadernoak eta beharrezkoa den guztia. Hori eskolak berak eskaini beharko luke eta ikasle guztiak material berbera izanen dutela ziurtatu behar da ahal den neurrian. Eskolek izan beharko lukete izan beharreko material guztia, ikasleei banatu eta denentzat aukera berdintasuna bermatzeko.

Gobernuak testu liburuen finantziatorako egin duen proiektu berri honek bete- betean dirua aurrezteko proposamen bat baino ez du ematen. Familiaren diru- sarreraren arabera liburuak finantzatzeko; horrela, dirua duenak liburu berriak izanen ditu, eta dirurik ez duenak, ordea, ez du liburu berriak izanen.

Gure ustez liburuak ikaslearenak izan behar dute: azpimarratzeko, oharrak hartzeko, eskemak garatzeko etab. Liburuaren iraupena orain arteko moduan lau urtekoa izatea, beraz, liburu berriak erosi ezin ditzaketenen kaltetan baino ez dira.

Hau guztia kontuan izanda, honakoa eskatzen da:

Doako hezkuntza eredu baten alde aritzea eta neurri horri begirako legea idaztea, proportzionalki urtez urte egin beharreko diru gastua neurtuz eta aurreikusiz.

Beka ereduak ez da eredu egokiena liburuak finantzatzeko: liburuak zuzenean jaso behar dituzte ikasleek, hala familiek dirurik aurrera behar ez dezaten.

Eskola liburuen mailegu ereduak aldatzea. Liburuak norberarenak izatea, finantziario horretan oinarritzea, hala ezberdintasunekin amaitu eta denei eskubide berberak aitortuz.

Eskola liburu eta ikasmaterialez gainera, eskola materiala ere finantzagarri izatea, eskolen aurrekontua handituz material hau erosi ahal izateko. Eskola materialak behar adina ikasleren artean banatu, aukera berdintasuna bermatzeko beste neurri baten moduan.

Nafarroako Gobernuak hau guztia aintzat hartzea eta hezkuntza unibertsala eta doanekoaren bidean benetako neurriak hartzea. Hezkuntzaren

kalitatea urratzen duten murrizketak alde batera utziz.

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeak honako osoko zuzenketa aurkezten dio testu liburuak eta material didaktikoa finantzatzeari buruzko Foru Lege proiektuari, Gobernuari itzul dakion.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatzeko Foru Legea

ZIOEN AZALPENA

Lurraldearen Antolamenduari buruzko azaroaren 11ko 12/1986 Foru Legean ezarri ziren hasiera batez udalez gaindiko proiektu eta plan sektorialek, zeinak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikuluan eta hurrengoetan arautzen baitira gaur egun, lurraldearen antolamendu tresnen artean.

Bai foru legedian, bai beste autonomia erkidego batzuetakoan, non plan edo proiektu horiek izen ezberdinak hartzen baitituzte –esaterako, eskualdekoak, udalez gaindikoak, udalez gaindiko interesekoak, interes berezikoak, lurralde jarduketakoak eta abar–, tresna-mota horien hasierako xedea zen arautzea udal-interes hutsetik harantzagoko intereseko azpiegitura, zuzkidura eta instalazioen ezarpena (errepideak, autobiak, obra hidraulikoak, energia-garraioak obrak...).

Geroago, tresna horien xedea zabaldu egin da, eta bizitegi-jarduketak ere hartzeraino iritsi da, lehenago udal hirigintzako planeamenduaren zehaztapen tipikoak zirenak ukituta. Halatan,

lurraldearen antolamenduko tresna gisa definitzen bada ere –alegia, “espresuki formulatutako irizpideen, arauen eta planen multzoa, lurraldearen gaineko jarduketak eta populazio-kokapenak orientatu eta arautzen dituen, zeinaren xedea baita oreka egoki bat lortzea lurraldearen, ingurumenaren, populazioaren, jardueren, zerbitzuen eta azpiegituren artean”–, azkenean nahasi egiten da haren xedea eta planeamenduarena, bai haren determinazio egituratzaileei dagokienez –horien bidez zehazten dira “udalerrri bakoitzaren lur eremu osoa okupatu, erabili eta zaintzeko eredia, hiriaren nahiz lurraldearen funtsezko elementuak, eta beraien etorkizuneko garapena”–, bai antolamendu xehekatuko determinazioei dagokienez –“aurrekoak zehazten dituztenak, behar den neurrian, exekuzio materialeko ekintza zehatzak egin ahal izateko”–.

Kasu egiazki salbuespenekoetara eta justifikatuetara mugatu behar da –aurreikusitako jarduketak hala exijitzen duen kasuetara, zeinetan antolamendua ezin baita egin hirigintzako planeamendu arruntaren bidez– Nafarroako Gobernuak duen ahalmena, ez soilik hirigintza arloko toki-eskumenak baldintzatzekoa, ezpada horien gauzatzea zuzenean bereganatzekoa ere, udal planeamendu indarduna aldatuz, halako moduan non toki entitateak ez baitira eskumenik gabe geldituko. Halere, lurraldearen antolamendu arloko tresna horien kontzeptuazioa lausoegia gertatzen da gaur egun, eta arriskua dago duten berezko xedeaz harantzago erabilliak izateko, hirigintzako planeamenduen ordezkotzat balira bezala; hau da, foru gobernuek horien erabilera diskrezionala egin lezake, udalen berezko eginkizunak ordeztzeko hala komeni zaionean, ez lurralde antolamenduaren arloko arrazoiengatik, baizik eta interes politiko, administratibo edo ekonomikoko arrazoiengatik. Udalez gaindiko eraginaren deklarazioa ekintza formal huts bihurtu da; sarritan, aipagai dituen jarduketan edo azpiegituren lurralde-eragina udal baten mugartera

mugatzen da (besterik da demografia, bizitegi, merkataritza, ekonomia, kultura eta beste arlo batzuetako eragina). Egungo araubidearen bidez ahalbidetu da tresna horien erabilera estentsibo bat egitea; horrek, tresnak desnaturalizatzeaz gain, toki autonomiaren esparrua argiro inbaditze-ko aukera ematen du (toki autonomiaren edukirik tipikoenetariko bat da, hain zuzen ere, udal lurraldearen hirigintza antolamendua).

Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialen araudi indardunaren ondorio horiek zuzentze aldera, horien definizio askoz ere zorrotzagoa eta beren izaerari doituagoa jasotzen da, bai eta betekizun zehatzagoak ere udalez gaindiko eraginaren deklarazioari dagokionez, segurtasun juridiko handiagoa ematen dutenak.

Artikulu bakarra. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 42. artikulua aldatu da, zeina honela geldituko baita:

“42. artikulua. Xedea.

1. Udalez gaindiko plan sektorialek honakoak dituzte xede: jarduketak –etxebizitzaren alorrekoak nahiz ekonomikoak–, edo plan eta politika publikoen garapena, baldin eta jarduketa edo garapen horien eraginak eta ondorioek, dituzten tamaina, garrantzi edo ezaugarri bereziengatik, gainditu egiten badituzte oinarri dituzten udalerrria edo udalerrriak.

2. Udalez gaindiko plan sektorialek honakoak dituzte xede: garraio sistemako azpiegiturak edo instalazioak ezartzea, hidraulikoak, ingurumenaren kudeaketakoak, energia alorrekoak, telekomunikaziokoak eta antzekoa den beste edozein, baldin eta horiek lurraldearen antolamenduan duten eraginak eta dituzten ondorioek, beren tamaina, garrantzi edo ezaugarri bereziengatik, gainditu egiten badituzte oinarri dituzten udalerrria edo udalerrriak.

3. Udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialetan biltzen diren determinazioak, zeinak sartuko eta egokituko baitira aplikatzekoak diren maila handiagoko lurraldearen antolamenduko tresnen determinazioetara, lotesleak izanen dira kasuko toki entitatearen edo entitateen planeamendurako. Horretaz gainera, ukitutako toki entitateek beren hirigintza-planeamendua egokitu beharko dute harentzat ezartzen diren determinazioetara, planeamendu hori berrikusi edo aldatzen denean, betiere aipatu determinazioek zuzenean ukitzen badute berrikuspen edo aldatzea horren xedea.

4. Nafarroako Gobernuari dagokio plan edo proiektu sektorial bat udalez gaindikoa dela dekla-

ratzea, foru lege honetan ezarritakoaren ondorioetarako. Horretarako, ondokoak arrazoitu eta justifikatu beharko ditu espedientean:

a) Aurreikusitako jarduketek edo azpiegiturak udalez gaindiko esparruan eragiten diotela lurraldearen antolamenduari, eta baldintza hauetakoren bat betetzen dutela: lurraldearen antolatzaile eta egituratzaile izatea; baliagarriak izatea Nafarroako Gobernuaren, toki entitateen edo Estatuaren politika sektorialek garaitu, ezarri edo exekutatzeko Nafarroako Foru Komunitatean; edo foru legedi sektorialean ezarritako determinazioei badagozkie.

b) Deklarazio hori beharrezkoa dela ondokoak ziurtatzeko: plan edo proiektuaren xede diren jarduketak, azpiegiturak, zuzkidurak eta instalazioak behar bezala txertatzen direla lurraldean; kasuko sare eta zerbitzuekiko lotunea, daudenen funtzionaltasuna kaltetu gabe; kokalekuaren inguruneari egokitzen zaizkiola, eta lurralde nahiz hirigintzako planeamendu indarduneko determinazioekiko artikulazioa; edo justifikazioa duela administrazio eskudunek onetsitako plan edo programa publikoetan, edo foru legedi sektorialean ezarritako determinazioetan.

c) Nafarroako Gobernuak onetsi edo ezetsi aurretik proiektu edo planaren udalez gaindiko eraginaren deklarazioa, foru lege honetako 45.1.b) artikulua aipagai duena, deklarazio horrek izan duela ukitutako gizarte- eta lurralde-eragileen bidezko gizarteratzea eta parte-hartzea Parte Hartzeko Plan publiko baten bidez, errespetatuta, betiere, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legeko bermeak, baldintzak eta eskubideak.”

Xedapen iragankorra.

Foru lege honetan xedatutakoa aplikatzekoa izanen zaie, indarrean sartzen den egunetik aitzina, prestatzen ari diren eta udalez gaindiko eraginaren deklarazioa Nafarroako Gobernuak onetsi gabe duten udalez gaindiko plan eta proiektu sektorialei.

Xedapen indargabetzailea.

Indarrak gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea, batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Foru Lege bat zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea, batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea, batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 1. artikulua ezartzen duenez, Espainiako hezkuntza-sistemak, Konstituzioaren balioei jarraiki antolatuta eta Konstituzioan aitortutako eskubideekiko eta askatasunekiko errespetuan oinarrituta, jarraibide izanen du “eskubide-berdintasunaren eta aukera-berdintasunaren garapena, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorraren sustapena.” Printzipio horrekin bat, ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeari buruzko 84. artikuluko 3. idatz-zatian xedatzen du ez dela diskriminaziorik izanen honako arrazoi hauengatik: jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia, edota beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo sozial”.

Auzitegi Gorenak oraintsu azaldu duenez –uztailaren 23ko 5492/2012 eta uztailaren 24ko 5498/2012 epaiak–, “sexuen arabera bereizitako hezkuntza-sistemaren zilegitasuna onartzen bada ere, administrazio eskudunarekin funts publikoen bidezko finantzaketa itundu ahal izatetik bazter gelditzen dira ikastetxe horiek”. Ondorio hori heldu da 2/2006 Lege Organikoko 116.1 artikulutik, ondokoa xedatzen baitu: “Lege honetan doakotzat

ezarritako irakaskuntzak eskaintzen dituzten eta 108. eta 109. artikuluetan xedatutakoaren esparruan eskolatze-premiei erantzuten dieten ikastetxe pribatuak itun-erregimenari lotu ahal izanen zaizkio, lege ezarritako baldintzetan”. Artikulu horretako 2. idatz-zatiak, berriz, hauxe xedatzen du: “Aurreko paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeen artean, egoera ekonomiko txarrean bizi diren ikasleak dituztenek eta hezkuntza-sistemarako interes pedagogikoa duten esperientziak egiten dituztenek izango dute itun-erregimenari lotzeko lehentasuna. Nolanahi ere, lehentasuna izango dute, arestian adierazitako irizpideak betez gero, kooperatiba-erregimenean eratuta dauden eta erregimen horretan diharduten ikastetxeek”. Ituna egitea ahalbidetzen duten irizpide horien artean ez da inolaz ere aipatzen ikastetxeak baterako hezkuntzaren sistemari atxikitzea. Baina argi dago ezen, alde aurretik, 2/2006 Legeko 84. artikulua, zeinak espresuki aipatzen baitu “ikasleen onarpena”, itunak egin ahal izatetik bazter utzi dituela sexuen arabera bereizten dituzten ikastetxeak, 3. idatz-zatian debekatu egiten baitu sexua dela-eta diskriminatzea ikasleen onarpena, eta diskriminazio hori aurretiazkoa da, ituna egin ahal izateko gainontzeko baldintzak baino lehenagokoa; eta argi dago, orobat, “sexuen arabera bereizitako hezkuntzaren aldeko hautua egiten duten ikastetxe horiek itunak egin ezin izateak ez duela gurasoen inolako eskubide konstituzionalik ere ukitzen, zeren eta gurasoek ikastetxea libreki hautatzeko eskubidea mantentzen baitute, ez eta ideario edo izaera berekiko ikastetxeak sortzeko titularrena ere, eta ez da zenbait ikastetxek, legeak ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, itunik egin ezin izateagatik urratzen Konstituzio 27. artikuluko 9. idatz-zatia ere”.

Halaber, lege organiko horretako hogeita bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, “eskubideen eta aukeren berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra sustatzeko, hezkuntza-etapa guztietan baterako hezkuntzaren printzipioa garatzen duten zentroek lehentasuna izango dute Lege honetan jasotako aurreikuspenen aplikazioan, Espainiak izenpetutako nazioarteko hitzarmenetan xedatutakoa aparte utzi gabe”.

Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoko 24. artikulua –“Berdintasun-printzipioa hezkuntza-politikan barneratzea”– hezkuntza-administrazioei agintzen die ondoko jarduketak egitea, besteak beste, euren eskumenen esparruan: “proiektuak eta programak garatzea, xede dutenak hezkuntza-erkidegoko pertsonen artean suspertzea baterako hezkuntzari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarriari buruzko printzipioen ezagutza eta zabalkundea”.

Xedapen horiek hezkuntzari buruzko foru-arau-bidean jasotze aldera eta itunpeko ikastetxe pribatuetan baterako hezkuntzaren printzipioa bultzatzen dela eta ikasleak onartzeko prozeduran sexuarengatiko diskriminaziorik ez dagoela ziurtatze aldera, bidezkoa da berariazko xedapen bat jasotzea, hezkuntza-itunak egin ahal izatea horren arabera baldintzatuko duena.

Artikulu bakarra. Xedapen gehigarri bat gehitzen zaio uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legeari, zeinak arautzen baitu batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa. Hona:

“Xedapen gehigarria.

1. Ezin izanen dute egin foru lege honetako 1. artikuluan araututako itunik sexu bakar bateko ikasleak soilik onartzen dituzten ikastetxeek, edo sexuaren arabera bereizitako taldeetan irakasten dutenek, edo modu batera edo bestera baterako hezkuntzaren printzipioa aplikatzen ez dutenek.

2. Halaber, ezin izanen dute itunik egin Foru Komunitateko Administrazioarekin sexu bakar bateko ikasleak soilik onartzen dituzten haur, lehen edo derrigorrezko bigarren hezkuntzako ikastetxeek, edo sexuaren arabera bereizitako taldeetan irakasten dutenek, edo modu batera edo bestera baterako hezkuntzaren printzipioa aplikatzen ez dutenek.

3. Edonola ere, Nafarroako Gobernuak, modu arrazoituan, erabaki dezake aurreko idatz-zatiek hizpide dituzten itunak luzatzea, bermatzeko –hori izanen du ondorio bakarra– orain ikastetxeotan matrikulatuta dauden ikasleek bertan jarraitu ahal izanen dutela, ikasten ari diren derrigorrezko hezkuntza etapak amaitu arte.

4. Erabat deusezak izanen dira xedapen honetan ezarritakoaren aurka ematen diren egintza guztiak.”

Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean farmazia-prestazioak osatzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioa maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoak arautzen du, modu anbulatorioan ematen den eta erabiltzaileek neurri batean ordaindu behar duen prestazio publiko gisa hartuta. Prestazio hori ekainaren 26ko 29/2006 Legean, medikamentuen eta osasun-produktuen bermeei eta arrazoizko erabilerari buruzkoan xedatutako berariazko araudiaren mende dago.

Lege hori aldatu egin du apirilaren 20ko 16/2012 Errege Lege Dekretuak, Osasun Sistema Nazionalaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko presako neurrienak. Horrenbestez, medikamentuaren zikloa esaten zaionaren zenbait esparrutako programa- eta kudeaketa-arauak ezarri dira; bereziki, prestazio publikoa kudeatzeko eta finantzatzeko ardura duten administrazio publiko sanitarioen jarduera-eremuan. Hortaz, barne hartzen da medikamentu horiek banatzen dituzten farmazia guztiekiko bitartekotza, bai eta finantzaketa publikoaren funtsezko ekarpena ere, sistemaren funtzionamendua bermatzeko.

Lege honek testuinguru horretan eragiten du, lehen helburu izanik Estatuko oinarrizko araudi berriaren aplikagarritasuna bideratzea. Horretarako, beharrezko neurriak egituratu behar dira, sendagaiak agintzeko funtzioa osa dadin sistemak sortuko duen informazioarekin, erabiltzaileen ekarpenarako mekanismoari dagokionez, eta,aldi berean, farmazia-prestaziorako baldintza onenak bermatzeko dituen kudeaketa-elementu berriak transmititzeko gai izan dadin.

Bestalde, foru lege honen helburu da, halaber, oinarrizko antolamenduaren garapenean sakontzea, Nafarroako Foru Komunitatean osasun-politikaren berariazko gidalerroak finkatzeko. Helburu horretarako, betiere legedia errespetatuz, eta Estatuko oinarrizko araudi berriak gastu publikoa arrazionalizatzeari buruz xedatutako helburu eta printzipioak kontuan hartuta, herritarrekin dugun konpromisoa hedatzeari ekinen diogu, eta, hala, Estatuak ematen duen oinarrizko prestazio-estatusa osatuko dugu, Nafarroan lortu ditugun babesmailei eusteko.

Foru lege honen bidez, osagarri bat erantsi ahalko zaie Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioa emateko Foru Komunitatearen eremuan dauden oinarrizko finantza-baldintzei, halako moduz non baldintza beretan jaso dezaten prestazio hori horretarako eskubidea dutenek, hau da, Osasun arloko eskubideei eta betebeharrei buruzko 17/2010 Foru Legeko 11. artikuluan adierazitakoek.

Estatuak, zenbait eskumen erabilita –horien oinarriak zehaztu gabe–, eremu bat finkatu du, eta horren gainean proiektatzen da marko estatala garatzeko ahalmena. Konstituzio Auzitegiaren doktrinari erreparatuta, eta hori maiatzaren 25eko 98/2004 epaitik aurrera argi eta garbi ageri da, Estatuak farmazia-prestazioa ezartzeari eta publikoki finantzatzeari dagokionez duen eskumenaren oinarria da, zehazki, Konstituzioaren 149.1.16 artikulua, Estatuak “osasunaren oinarrien” arloan

duen eskumena ezartzen duena. Hori argi gelditu da, besteak beste, gizarte-segurantzaren sistemako osasun-laguntzak galdu egin duelako lehen zuen izaera, eta orain ez delako bakarrik kotizaziopekoentzat; horrek behin betikoz lagundu du Sistema Nazionalan jasotzen den prestazio publikoen sistema birdefinitzen eta finkatzen, zeina, gaur egun, erabat finantzatzen baita zerga orokorren kargura.

Foru lege honek bilatzen duena da Nafarroako Foru Komunitateari dagokion eskumen-eremuaren oinarrizko antolamendua hedatzea edo hobetzea, kasuan kasuko politika publikoak garatzeko eta gauzatzeko ahalmena baitu.

Ekimen honek ez du inolako ondorio negatiborik eragin behar Osasun Sistema Nazionalari dagokion araudiaren aplikazioaren egunerokoan, eta, jakina, Osasun Sistema Nazional guztian prestazioak ekitatez eta benetako berdintasunean jasoko direla bermatuta egonen behar duenez osoki, ez du horretan ere eraginik izan behar. Gainera, kontuan izan behar da hau ez dela sendagaien edo osasun-produktuen berariazko erreserba bat; izan ere, erreserba horiek mugatzaileak dira, ekainaren 26ko 29/2006 Legeak, medikamentuen eta osasun-produktuen bermeei eta arazoizko erabilerari buruzkoak xedatutako araubide juridikoari jarraikiz.

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honek xede du farmazia-prestazioaren oinarrizko finantza-baldintzak osatzea Nafarroako Foru Komunitatean.

2. artikulua. Eskubidearen titularrak.

Arau honetan deskribatzen diren farmazia-prestazioen osaketarako eskubidea izanen dute hurrengoek:

1. Osasun Sistema Nazionalaren bidez funts publikoekin finantzatzutako osasun-laguntzaren eremuan sartutako pertsonak, haren asegurdun edo onuradun direlako.

2. Prestazio berberak jasoko dituzte, halaber, Nafarroako Foru Komunitatean pertsonak osasunaren arloan dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko 17/2010 Foru Legeko 11. artikuluan jasotakoaren arabera osasun-laguntza publikorako eskubidearen titularrak diren eta artikulua honetako 1. idatz-zatian sartzen ez diren pertsonak.

3. artikulua. Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioa aplikatzeko arauak.

1. Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio publiko anbulatorioa osatzen duten

medikamentuak eta osasun-produktuak Nafarroako Foru Komunitatean banatzeko, Estatuko oinarritzko araudiari, foru lege honi eta foru lege hau garatzeko edo aplikatzeko ematen diren gainerako araei jarraituko zaie.

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-zerbitzuetan botikak agintzen laguntzeko dauden informazio-sistemetan, zeinetan zenbait informazio- eta interakzio-azpisistema baitaude, bai eta Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestakuntzan barne hartutako medikamentu-izen-degia ere, gehituko da araudiak ezarritakoa, eta bereziki foru lege honek xedatutakoa farmazia-prestazioetan erabiltzaileek egin beharreko ekarpenen sistemari buruz.

3. Medikamentuak eta osasun-produktuak agintzeko, Osasun Sistema Nazionalan baliagarriak diren errezetak eta erizaintza-aginduak egiteko eredu ofizialak bete behar dira.

4. artikulua. Osasun Sistema Nazionalaren Nafarroako Foru Komunitateko farmazia-prestazio anbulatorioaren finantza-estaldura publikoaren hedapenerako arauak.

1. Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioa Osasun Sistema Nazionalan oro har aitortutako eskubidearen ildotik eskuratzeko dutenei, eta foru lege honetako 2. artikuluko 2. idatz-zatiak araututako estalduraren hedapenari dagozkion kolektiboetakoak ez direnei, 29/2006 Legeak erabiltzaileen ekarpenei buruz xedatutakoa aplikatuko zaie (ekainaren 26ko 29/2006 Legea, medikamentuen eta osasun-produktuen bermei eta arrazoizko erabilerei buruzkoa). Bermatuta geratuko da, betiere, pertsona guztien benetako berdintasuna prestazioak eskuratzeari dagokionez.

2. Foru lege honetako 2. artikuluko 2. idatz-zatian aipatzen diren pertsona guztiek izanen dute 5. artikuluan araututako estaldurarako eskubidea.

3. Finantza-estaldurarako eskubidea duten pertsonen medikamentuak eta osasun-produktuak hartzen badituzte Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo dauden farmazietan, eskatu ahal izanen dute, betiere, farmazia horietan gehiegi ordaindutakoa itzultzea, Nafarroako Foru Komunitateko farmazietan ordainduko zutena erreferentziatzat hartuta.

5. artikulua. Finantza-estaldura zabaltzearen norainokoa.

1. Aurreko artikuluan xedatutako estaldurak honako baldintza ekonomiko hauek ditu, erabiltzaileek Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-pres-

tazio anbulatorioarako egin beharreko ekarpenei dagokienez:

a) Orokorrean, publikoarentzako salmenta-prezioaren ehuneko 40ko ekarpena egin beharko dute erabiltzaileek. Baldintza horietatik kanpo geratzen dira ekarpen murriztuaren sistemaren mendeko medikamentuak.

b) Salbuespen gisa, ez dute ekarpenik egin beharko honako kategoria hauetako erabiltzaile eta onuradunek:

i. Pentsiodunek, barne hartuta kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonak.

ii. Sindrome toxikoen kalteak pairatu dituztenek eta ahalmen urriko pertsonak, berriazko araudietan xedatutako kasuetan.

iii. Gizarteratze errenta jasotzen duten pertsonak.

iv. Langabezia-saria jasotzeko eskubidea galdu duten langabeek, egoera horretan dauden bitartean.

v. Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen ondoriozko tratamenduak dituzten pertsonak.

vi. Ekarpentetik salbuetsita daude ondotik zerrendatzen diren pertsonak ere:

- 65 urtetik goitikoak.
- Alargunak.
- 18 urtetik beheetiko umezurtzak.
- % 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa duten pertsonak.

2. Ekarpene hori egingen da medikamentua eskuratzeko unean. Medikamentua Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko farmazia batean eskuratzeko bada, gehiegi ordaindutakoa 4.3 artikuluan xedatutakora egokituko da.

Xedapen gehigarria.

Nafarroako Foru Komunitatean legez ezarritako farmaziak zein diren kontuan hartuta, hain zuzen ere Osasun Sistema Nazionalaren farmazia-prestazio anbulatorioari dagozkion medikamentuak banatzeko laguntza profesionala ematen duten farmaziak, Osasun Departamentuak beharrezko neurriak hartuko ditu haiei foru lege honetako arauak helarazteko eta integrarazteko.

Azken xedapenetan lehena.

Osasuneko kontseilariari ahalmena ematen zaio, errezeten eta erizaintza-aginduen eredu ofiziala egokitzei ekin diezaion, hau da, hura eguneratzeko, araudira egokitzeko, edota Nafarroako

Foru Komunitateko farmazia-prestaziorako beharrezko eskakizun operatiboetara egokitzeko, eta, horrez gain, xedapen zehatzak emateko 5.2 artikuluan aurreikusitako gastu-itzulerarako prozedura ezartzeko.

Azken xedapenetan bigarrena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Lurrealdearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Lurrealdearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

Agintzen da erabaki hori argitara dadin, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Lurrealdearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42. eta 45. artikulua aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen bazter uztea Lurrealdearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeko 42. eta 45. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena.

Agintzen da erabaki hori argitara dadin, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114.1 artikulua xedatutakoa betez.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan ardibide edo abelbideetan dauden herri-lurrak egiazki berreskuratze aldera.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan ardibide edo abelbideetan dauden herri-lurrak egiazki berreskuratze aldera.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat aurkez dezan Parlamentu honetan, Nafarroako ardibide edo abelbide izenekoetan sartutako herri-lurrak egiaz berreskuratze.”

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako zenbait material didaktiko sar dezan ETaren terrorismoak Nafarroan izandako ondorenen kontakizuna egiteko proiektuaren barruan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ikastetxeetarako zenbait material didaktiko sar dezan ETaren terrorismoak Nafarroan izandako ondorenen kontakizuna egiteko proiektuaren barruan.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legea nahiz Nafarroako Parlamentuak 2012ko ekainaren 14an onetsitako mozioa (8-12/MOC-00064 espediente zenbakia) betez, ikastetxeetarako material didaktikoa sar dezan ETaren terrorismoak Nafarroan izandako ondorenen kontakizuna egiteko proiektuaren barruan.”

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen ditu Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jasotako “doitze-neurri” deituak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen ditu Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jasotako “doitze-neurri” deituak”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Gobernuak erabat arbuiatzen ditu Gobernuko lehendakari Mariano Rajoyk iragarritako “doitze-neurriak”, Aurrekontuen Egonkortasuna Bermatzeko eta Lehiakortasuna Sustatzeko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan jasotakoak.

2. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa azaltzen du, behar diren neurri juridiko, politiko eta sozial guztiak abian jartzeko, eragozte aldera neurri horiek Nafarroan aplikatzea. Eta defenditze aldera, foru autogobernutik, neurri eta murrizketa sozial horiek ez aplikatzea, eta ekonomia susper-

tzeko eta lanpostu berrien sorrera sustatzeko beste neurri kontra zikliko batzuk ezartzea.

3. Nafarroako Gobernuko langileei dagokienez –lan-kontratudunak nahiz funtzionarioak izan–, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bere esparruan 2012an aplikatu dezan “urte amaierako ordainsari berezi” baten ordainketa, abenduan, uztailako ordainsariaren zenbateko berekoa, zertarako eta konpentsatzeko langile horien dedikazioa, zerbitzu publikoen bidez Foru Komunitatearen gizarte ongizatearen mailetan jardutekoa, eta erkidegoko ekonomiaren dinamizazioari laguntzeko.

4. Nafarroako Parlamentuaren iritziz, egungo politika ekonomikoa eta uztailaren 13ko Errege Lege-dekretuko neurriak oso-oso larriak dira sozialki, bai dakarten gizarte-bidegabekeriagatik, bai eragin dezaketen atzeraldi ekonomikoagatik, bai jarduera ekonomikoaren pizgarri gisa eta enplegu-sorrerari dagokionez lagungarri ez izateagatik, bai eta gure autogobernuaren eskumenen aurkako eraso bat izateagatik ere. Hortaz, gizarteari dei egiten dio neurri horien aurkako mobilizazioetan parte har dezan.”

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernua eta haren Industria, Energia eta Turismo Ministerioa premiatzen dira ez dezaten luza Garoñako zentral nuklearraren bizitza.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Espainiako Estatuko Gobernua eta haren Industria, Energia eta Turismo Ministerioa premiatzen dira ez dezaten luza Garoñako zentral nuklearraren bizitza.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Estatuko Gobernua eta haren Industria, Energia eta

Turismo Ministerioa premiatzen ditu ez dezaten luza Garoñako zentral nuklearraren bizitza.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du apustu garbia egin dezan energiaren aurrezpena lehenestearen alde, kontsumoa murriztuz, iturri ekologiko berriztagarriak erabiliz eta energia berriztagarrien forma guztien garapena babesteko politika eginez, halako moduan non egungo energia sistematik beste sistema iraungarriago eta solidarioago baterantz aldatzea lagunduko baita.”

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan osasun arloko entitate pribatuekiko itunei eta deribazioei buruzko plan berria.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko urriaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurkez dezan osasun arloko entitate pribatuekiko itunei eta deribazioei buruzko plan berria.”

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du mozio hau onetsi eta hilabeteko epean aurkez dezan jadanik iragarritako plan berria, osasun-arloan entitate pribatuekin itunak eta deribazioak egitekoa, zeinak sistema publikoaren egiazko beharrianak aztertuko baititu, eta orobat aurkez dezan entitate pribatuentzako baliabideak sare publikoaren zerbitzua handi-

tzeko erabiltzearen aukerari dagokion kalkulu ekonomikoa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du aipatu Itun Planaren barrenean txosten bat presta eta aurkez dezan, sakonki aztertuko duena, Comptos Ganberak gomendatuari jarraikiz, Nafarroako Unibertsitateko langileen osasun-laguntza oinarritzakoa eta espezializatua kanpoan kontratatua mantentzearen arrazoizkotasuna.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kolektibo hori Osasunbidean pixkanaka sartzeko plan bat presta dezan, ituna 2013rako luzatzea izenpetu aurretik. Plan horrek 2013ko abendua izanen du gehieneko epe gisa.”

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak Nafarroako Gobernuari dei egin dion edota Gobernuak Sala horren aurrean agertzeko asmorik ba ote duen, Hitzarmenaren azken aldaketari buruz UPyD alderdiak aurkezturiko errekurtsoa dela eta.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarrak, 2012ko urriaren 11n egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera zen jakitekoa Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salak Nafarroako Gobernuari dei egin dion edota Gobernuak Sala horren aurrean agertzeko asmorik ba ote duen,

Hitzarmenaren azken aldaketari buruz UPyD alderdiak aurkezturiko errekurtsoa dela eta.

Galdera hori 2012ko urriaren 9ko 81. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera
